

Hizkuntzaren gatazka

(Round table: The linguistic reality)

Iñaki Azkona, Nafarroako Gobernua; Mikel Bujanda, Euskalerrria Irratia; Xabier Erize, Eusko Ikaskuntza; Andoni Esparza Leib̄ar, Lesakako Udala; Roldán Jimeno, Nafarroako Ateneoa; Paula Kasares, Hizkuntza Eskubideen Behatokia; José Luis Mendoza, Euskara Kultur Elkargoa; Gregorio Monreal, Nafarroako Unibertsitate Publikoa

BIBLID [1137-1951 (2003), 11; 27-32]

M

ahai-inguru hone-
tan, euskarak Nafarroako gizarte-
an bizi duen errealitatea aztertu
nahi izan dugu; hau da, nola ikus-
ten duten euskaldunek beren ego-
era, zertan den euskararen
inguruko diskurtsoa, nola aldatu
den testuingurua azken urteotan,
zein ondorio dauzkan ofizialtasu-
nak, etorkizuna nola bideratu
beharko litzatekeen, eta abar.
Horretarako, Nafarroako esparru
ezberdinetako adituen ikuspegiak
bildu ditugu mahaiaren inguruan.

Giltza hitzak: Euskara.
Gaztelania. Diskurtsoa.
Ofizialtasuna.

E

n la mesa redonda
dedicada al estudio de la realidad
lingüística de Navarra hemos ana-
lizado, de la mano de expertos
procedentes de distintos ámbitos
de la realidad social de la
Comunidad Foral, aspectos tales
como la situación en la que se
encuentran los vascoparlantes, el
discurso del euskera, la transfor-
mación del contexto, los efectos
de la oficialidad, las posibles vías
de cara al futuro, etc.

Palabras clave: Euskera.
Lengua española. Discurso.
Oficialidad.

a

u cours de la table
ronde consacrée à l'étude de la
réalité linguistique de Navarre, les
experts venant de différents
milieux de la réalité sociale de la
Communauté Forale ont analysé
des aspects tels que la situation
dans laquelle se trouvent les per-
sonnes parlant le basque, le dis-
cours de l'euskera, la
transformation du contexte, les
effets de l'officialité, les voies pos-
sibles face à l'avenir, etc.

Mots clés: Langue bas-
que. Langue espagnole. Discours.
Caractère officiel.

Iñaki Azkona: la %100ean ados nago Xabierrekin. Nafarroan arazo bat daukagu: kanporatu egin nahi gaituzte, ikustezinak bihurtu, baina gu egon bagaude, izan bagara, hori ongi dakigu guk noski eta ongi daki ere bai hiri eta herrietako plaza eta kaleetan dabilen jendeak, etxe-bizitza komunitateetako bizikideek... Familia ia gehienetan ere ongi dakite... gure existentzia baieztatuta dago. Guk egin behar duguna da Xabierrek aipatu duen ideologia horren aurrean argudio onak bilatu, estrategia zuzenak, zilegizko bideak.



Xabier Erize, Gregorio Monreal, Itziar Alkorta, José Luis Mendoza, Roldán Jimeno.

Fikzio bat garela, nazionalismoak asmatua edo halako mitologia handi-mandi gezurrezko batek sortua. Uste dut hori dela euskaldunen aurkariaren gaurko ideologiaren gako bat, gako oso inportantea gainera: *“hauek ez dira benetan existitzen, lau katu besterik ez dira, ez dute euskal libururik jasotzen liburutegietan... eta oso gaizki idazten dute... baina goraipamenen interes solidarioen halako elkarte bat dute montatua... Fikzio horren gainean heldu dira gero programak eta diruak eskatzen... horietan baino askoz ere behar haundi eta gordinagoak dituen gure gizartean...”*

Horri guztiari buelta eman behar zaio, eta, horretarako, noski, guztiz bat nator Xabierren nagusitasun moralaren ideiarekin.

Ez dituzu aipatu, Xabier, lana egiteko bitartekoen eta hezkuntza eskubideen gaiak -guk, hizkuntza baten hiztun garen neurrian, eta hizkuntza honen eremuan, eskubideak dauzkagu, eta ezin dizkigute eskubide horiek ukatu-. Bitarteko baketsuak erabili behar ditugu. Gure aldarrikapenek legitimoak izan behar dute, oinarrituak... baina bitarteko onuragarriak erabili

behar ditugu, horiek ere estilo bat osatzen dutelako.

Paula Kasares: Iñakiak erran bezala, nik ere ia adostasun osoa dut. Dena den, gauza batzuk sakondu nahiko nituzke, xehetasun batzuetan erreparatu. Aipatu duzu diskurtsoa serio hartzeko moduko elementua dela. Ez bakarrik gure idearioa zein den agertzen duelako, baizik eta praktikak legitimatzeko erabiltzen delako. Nik uste dut gaztelaniaren aldeko interes handia duten Nafarroako sektoreek diskurtsoa erabiltzen dutela interes jakin bat duten praktika batzuk legitimatzeko. Berez, diskurtsoaren funtzio hori guretzat ere baliagarria da. Guretzat ere garrantzitsua da diskurtso berriak sortzea, zuk aipaturiko elementuetan oinarrituz.

Normalizazioaren kontzeptuaren inguruan, Nafarroako Gobernua, zenbait adierazpenetan irakurri ahal izan dugun bezala, jabetu da kontzeptu honetaz, baina adiera arrunta eman dio. Euskararen egoera normala da, historian normala izan baita erdararen azpian egotea eta hizkuntz komunitate gutxitua izatea. Sanzen zein Jesús Lagunaren ahotan aditu ahal izan dugu euskararen egoera Nafarroan normalduta dagoela. Horren errua batzuetan geurea izan da, ez dugulako “normalizazio” kontzeptua ongi definitzen jakin, eta guk geuk horrekin zer erran nahi dugun oso ongi jakin gabe erabili dugu. Gure ahuldadeez baliatu dira, eta kontzeptu hori geure interesen kontra hartu dute. Honetan, Mills soziologoak erraten duen bezala, imaginazio soziologiko pixka bat eskatuko nuke¹. Beste termino eta kontzeptu batzuk asmatu behar dira sortu nahi dugun errealitatea izendatzeko, ahulak diren kontzeptuetatik ihes eginda.

Diskurtso berriak nagusitasun etikoaren elementu izan behar duela aipatu duzu. Nik ere ikusten dut Nafarroan, oinarri-oinarrian, badela insolidaritate arazo handi bat, erdal komunitateari ikusarazi behar dioguna.

Ofizialtasuna, berriz, balio sinboliko handiko elementua izan daiteke, baina praktikan agian ez gintuzke askoz ere urrutirago eramanen. Erran nahi dut Nafarroa ez dela bere baitan ezberdintasun soziolinguistiko handi-handiak dituen bakarra; badira bertze lurralde batzuk ere (Euskal Autonomia Erkidegoa, Valentzia...). Lurralde osoari ofizialtasuna aitortzeak, ofizialtasun horrek Nafarroan dituen hizkuntza errealitate ezberdinak kontuan hartzen dituen graduazioa barnean duela -Valentziako

1. Wright Mills, C. *The Sociological Imagination*, Oxford University Press, 2000.

Komunitatean egin zuten bezala-, agian ez gintuzke aunitzez urrutiago eramanen, baina kontuan hartu beharreko erreibindikazioa izan daiteke.

José Luis Mendoza: Lehenik eta behin, testuingurua hartu behar dugu kontuan, zernolako elementuak aldatu diren azken urteotan. Eta lehendabizikoa da irailaren 11n gizarteak lehen aldiz beldurra sentitu duela. Nik uste dut gizartea gaur egun prest dagoela eskubideak murrizteko lasaitasuna eskuratzearren. Zer lotura du honek euskararekin? Diskurtso dominante horretan nahiko ohituta gaude euskara, euskalgintza, kultura eta abar zaku berean sartzeraz.

Europa mailan, mirestu egiten dute Espainiako hizkuntzen egoera, eta pentsatzen dute Espainiako kasua eredugarria dela. Are gehiago, Europako hainbat hizkuntza gutxitutik nahiko lukete gure egoera. Horrek erran nahi du kontuan hartu behar dugula ez bakarrik zer irabaz dezakegun, baizik eta baita zer gal dezakegun ere.

Euskal Herriari eta Nafarroari begira, beti euskararen erabilera politikoa izan dugu argudio edo aitzakia gisa, eta beti besteei leporatzeko erabili dugu. Baina autokritika egin behar diogu gure buruari, batez ere euskalgintzatik. Nahiko pasiboki onartu dugu egoera hori, eta ez dugu azaldu, kaleratu edo deitoratu gure komunitatearen barruan hainbat arlotan ez gaudela guztiok ados. Laburki esanda, ezin ditugu gure hizkuntza eskubideak aldarrikatu, euskaltzale batzuek euskara eta euskal kultura indarkeriarekin lotzen jarraitzen badute, beste oinarrizko eskubideak errespetatu gabe. Eta argi eta garbi erran behar dugu gure hizkuntza komunitatean ere ez garelako denak iritzi berekoak.

Bestalde, euskalgintza kulturala heldutasun batera eraman behar dugu, autonomoki jokatzeko. Gizartearen beste arlotan gertatu den bezala (feminismoan, etorkinen gaian, lan munduan, etab.), mugimendu horiek normalean alderdien magalean sortu dira, baina autonomia eskuratu dute. Gure helburuak lortzeko, nahiko ondo bereizi behar dugu zer den erronka kulturala orokorrean eta zeintzuk diren erronka politikoak. Eta sinesgarritasuna eskuratzeko, partido abertzaleen hainbat joera zuzentzen edo salatzen hasi behar dugu.

Alderdi politikoetako euskararen aldeko diskurtsoak, oraingoaz, nagusiki balio sinbolikoa

du. Alderdi politikoei eskertu behar diegu historian zehar euskararen garra eraman eta pasatzea, baina hori ez da aski, eta kasu honetan alderdiek euskararen erabilera sinbolikoa gainditu eta euskara eguneroko erabilerrara ekartzeko ahalegina egin behar dute. Sinesgarritasun falta izugarria dute hainbat alderdik, euskararen defentsa gaztelaniaz eginez.

Euskaldunen komunitatea ez homogenea. Nire kasua aipatzeko, iaz sentitu nintzen lehendabiziko aldiz euskal hiztun, euskaldun komunitatearen partaide alegia, zeren orain arte, lan munduan bezala, "fijo discontinuo" sentitu naiz: nire emaztea erdalduna da, beraz etxeko hizkera erdara da, eta baita ere okindegian, estankotan, erosketetan... Orain Leitzan ari naiz lanean, eta hor bai sentitzen naizela euskal hiztunen komunitatearen partaide.

Ez da gauza bera Leitzan edo Burlatan egotea. Gure hizkuntza komunitatea difuso edo barreiatua izateak beste erronka handi bat suposatzen du. Kontu egin Cabanillas, Iruña edo Lekunberriko erdaldun bati bost axola zaiola euskal komunitatearen defentsa, bere erdal komunitatearen nortasuna nahiko bermatua duelako. Horren gaineko ikerketa sakona egin behar dugula iruditzen zait.

Arrisku edo erronka gisa, hizkuntza eredua dugu. Gure ametsetan, zein da gure eredua? Belgikakoa? Suitzakoa? Herbeheretakoa? Estoniakoa? Irlandakoa? Finlandiakoa? Aztertzeke daukagu hori. Zein gizarte eredu nahi dugu gure Nafarroarentzat?

Xabier Erize: Ni ere ados nago esan duzuen gehienarekin. Fikzioaren ideia oso



Xabier Erize, Gregorio Monreal

interesgarria da. Euskaldunen existentzia bera ukatzera iristen dira, eta historian zehar ere askotan esan dute hori: euskaldunak periferian kokatzen zituzten, erdigunetik kanpo, dela denboran, dela geografian.

Hizkuntza eskubideen kasuan, gauza bat ikusten dut: euskara goraka doanean, hizkuntza eskubideak ere goraka doazela, eta euskara beheraka doanean motibazioan edo onarpen sozialean, hizkuntza eskubideak ere beheraka doazela. Euskararen onarpena handia denean gizartean, oso zaila da hizkuntza eskubideak murriztea, eta alderantziz. Nik beti izan dut gogoan Txepetxen artikulua bat, orain dela hamabi urte atera zuena, *La realidad y la ley*². Bertan esaten zuen errealitatearen eta legearen artean, azken finean agintzen duena errealitatea dela. Kasu honetan, euskararen errealitate sozialak agintzen du. Legea eta egoera sozialaren binomio horretan, gehiago begiratzen diet egoera sozialari eta motibazioei, jarrerari, taldeen arteko harremanei, mezuei, etab.

Beldurrarena argi eta garbi dago. Neurri batean edo bestean, denok sentitzen ari garela uste dut. Eta artikulua askotan agertzen da. Gogoan dut Aingeru Epaltzak, artikulua batean, aipatzen zuela gogoan zuela kalean ibiltzeko edo jendearekin harremanetan ibiltzeko euskaltzale izatearen beldurrik gabe.

“Fijo discontinuo” egoerari dagokionez, garbi dago mailaketa bat dagoela euskal hizkuntza komunitatean, eta euskalduntasunaren mailan edo euskararekiko atxikimenduan, edo hizkuntzaren ezagutzan, motibazioan... Orokorrean gertatzen da, bai sozialki, komunitate mailan, eta bai pertsonalki. Nik uste dut hori elebitasunaren ideiarekin lotuta dagoela. Nafarroan bi hizkuntza komunitate gaude, euskalduna eta erdalduna, baina nik uste dut geure baitan ere bi komunitate horiek badaudela, modu batean edo bestean. Denok gara bi komunitateen partaide, neurri batean, batzuetan gehiago, besteetan gutxiago... Errealitate hori ezagutzetik, aztertzetik eta onartzetik pentsatu behar dugu gure diskurtsoa, euskararen aldeko diskriminazio positiboa eragiteko, geure burutik hasita, gizarteraino.

Gregorio Monreal: Iruditzen zait gai garrantzitsu bat bazterrean uzten ari garela: gizarteak hizkuntzari ematen dion legitimazioaren ikuspegitik, Elizak duen funtzioa. Hizkuntzaren gaineko politikaren krisi hau sortu denean,

Gobernuak eta PSOE eta UPNk sortua, askok uste genuen Elizak zerbait esango zuela. Artzapezpikuak, Pastoralaren ardura dutenek, adierazpenen bat egingo zutela.

Nafarroan Elizak indar handia du oraindik. Uste dut gaur egun nafarren 30% praktikantea dela. Penintsulan bi jarrera nabarmen egon dira hizkuntzekiko: Kataluinak eta Euskal Autonomia Erkidegoak hartu duena batetik, eta Galiziakoak hartutakoa bestetik. Galiziako artzapezpikuek inoiz ez dute ezer esan galegoaren gainean. Izango ez balitz bezala jokatu dute. Nafarroako egoera, Galiziakoaren antzekoa da. Ia egoera bera dela esango nuke nik. Nafarroako Elizak ez duenez ezer esan, Gobernuaren politika onartu egin duela ulertu da. Elizaren barruan gaur egun alderdi konstituzionalistak dira nagusi, edo behintzat *status quo*-aren aldekoak, eta zoritxarrez, praktikante gutxi jabetu dira beren hizkuntza eskubideez, edo behintzat ez artzapezpikuek kontuan hartzeko adina.

Diskurtsoari dagokionez, uste dut gako inportante bat dagoela, erabili ez duguna. Atzo, Sevillako Unibertsitateko katedradun batek hitzaldi bat eman zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan, federalismoari eta kulturantzatasunari buruz. Antropologia juridikoaren ikuspegitik aritu zen, kulturaren gaineko eskubideaz, esanez kultur eskubideak norbanakoaren eskubideak badira ere, taldean egikaritu behar direla, eta hori dela hain zuzen ere giza eskubiderik garrantzitsuenak. Eskubide horren garapena azaldu zigun. Frantziako Iraultza aurretik, inork ez zuen aintzakotzat hartzen, eta gero, pixkanaka bilakatzen joan ondoren, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean amaitu zuen. Eta gaur egun nazioartean jurisprudenzia sendoa dago kulturaren gaineko eskubideari buruz. Nik uste dut oso garrantzitsua izango litzatekeela legitimazio morala eskuratzeko euskaltzaleok horretaz konturatzeari eta horretaz baliatzea.

Gauza bera Estatuko legediaren gainean. Euskararen Foru Legearen aurretik Konstituziorik izan ez balitz, eta beste erkidegoetako hizkuntza legeak egon izan ez balira, sozialistak ez ziren ausartuko aurkeztu zuten moduko lege proiektu bat aurkeztera. Euskararen sustapena gure esku bakarrik egon izan balitz, ez zen Euskararen Foru Legerik ere egongo. Baldin badago, Katalunia, Valentzia, Galizia eta Euskal Autonomia Erkidegoko legeak egon direlako da. Konstituzio Auzitegiaren jurisprudenzia ikusita

2. José María Sánchez-Carrión (1991ko urtarrila), “La realidad y la ley”, In: *Imprecor* aldizkaria, 81. zkia.

Konstituzio Auzitegiaren garai on haietan, Nafarroakoa Gobernua ez zen besterik egitera ausartu. Kontua da Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia bizirik dagoela oraindik, eta Nafarroako Gobernuari betebeharrak ezartzen dizkiola. Baina adi ibili behar dugu, orain arteko eskubideak gutxituko dituen jurisprudentzia berri bat datorkigulako gainera. Litekeena da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Legea geratua egtea Gobernua beldur delako Auzitegi Konstituzionalak zer esango ote dion. Gizartean ezagutzera eman beharko genituzke Euskararen Foru Legea eta Auzitegi Konstituzionalaren hizkuntza eskubideen gaineko jurisprudentzia, gure alde daudelako.

Mikel Bujanda: Niri sortzen zaidan zalantza da aztertu dugun diskurtso hau zenbateraino den gaur egun gertatzen ari zaigunaren eragile. Hau da, Nafarroan aginte politiko-administratibo-ekonomiko-mediatikoa dutenen jarrera diskurtso honetan oinarritua ote dagoen, edo diskurtso hau guztia ez ote den beranduago sorturiko gainjantzi bat. Oso deigarri eta interesgarria iruditu zait 1981-1991 urteetako CIESen azterketa. Bertan adierazten zuen Nafarroako gizartean badela segmentu txiki bat, elitekoa, baina eragin handia duena. Eta horrek beligerantzia bat du euskararen aurka, alde aurretik bere posizio ideologiko-ekonomikotik hartua. Azken batean, diskurtso horrek gaur egun gertatzen ari dena esplikatzen digu, ala hau gerora sorturikoa da? Egiarki faktore eragilea ez ote da elite bat, gerora, zirkunstantzia batzuegatik, Nafarroan boterea duena, eta gure ahuleziak baliatu dena? Faktore erabakitzailea ez ote da aurrez hartua dagoen posizioa, eta gero etorri diren diskurtso hauek guztiak ez ote dira jarrera horren gainjantzi bat?

Xabier Erize: Nik uste dut dena lotuta dagoela. Diskurtsoa askotan gainjantzi bat izan daiteke, baina nik uste dut kasu honetan eragileagoa izan dela diskurtsoa bera, aurretiaz hartutako jarrera baino. Denok izango dugu gogoan 97ko Sinposioaren inguruan gertatu zena³. Ordura arte, nolabaiteko adostasuna zegoen, erdi tolerantzia bat, baina ordutik aurrera giro hori apurtu egin zen. Baina ez berez, baizik eta Aurelio Arteta eta beste batzuk atera zirelako giro hori apurtzera. Artetak bere lehenengo artikuluan bertan markatu zuen diskurtso honen guztiaren programa edo helburua: Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika aldatzea. Argudio nagusia zen kongruentzia falta zegoela Nafarroako alderdi nagusiak eta Hizkuntza

Politikaren Zuzendaritza egiten ari zirenen artean. Hori hasieratik salatu zuten, eta nolabaiteko kongruentzia bilatzea bultzatu zuten. Abian jarri zen diskurtso hori eta horren haritik etorri dira gauzak. Beharbada diskurtsorik gabe ere etorriko zen, auskalo, baina bilatua izan zen, eta artikulua idatzi ziren justu horretarako, biztanleak konbentzitzeko ordura arteko euskararen politikak izandako bidea baztertu egin behar zela.

Andoni Esparza Leibar: Hemen, Nafarroan, eta printzipioz guk, euskaltzaleok, izugarritzko indarra izan beharko genuke. Gutxiengo bat gara, baina nahiko gutxiengo zabala. Kasu normal batean, Nafarroan ez zen aukerarik ere izango euskararen kontrako politika egiten duen Gobernu bat osatzeko. Gertatzen dena da hemen ez dugula egoera normal bat. Alde batetik ETaren presentzia dugu, eta baita ere euskaltzaleen zati batek ematen dion babesa.

Beste alde batetik, espainiar zentralismo bat existitzen da. Garbi esan behar duguna da Euskararen Legea aldatzeko, edozein demokrazian bezala, Parlamentuaren botoak beharrezkoak direla. Kontua da hori nola lortu. Hemen arazoa ez da juridikoa, soziologikoa baizik.

Egoera horrelakoa izanik, zer egin dezakegu? Alde batetik, alderdi euskaltzaleak asko dira, euskararentzat gaur egungo egoera baino zerbait hobea eta gehiago nahi dutenak (Aralar, Batasuna, Batzarre, Eusko Alkartasuna, Eusko Alderdi Jeltzalea, Ezker Batua). Baina, bestalde, nik uste dut irteerak bilatzeko ezin dela gehiegi espero alderdi politikoetatik, eta aukera berriak eta irtenbideak batez ere euskararen munduan dagoen jendeak pentsatu behar dituela. Horregatik, niri oso interesgarria iruditu zait hona etortzea, ikusirik zein jende bildu garen, zeren uste dut hau dela tokirik aproposena zerbait aurreratzeko.

Euskarak Nafarroa osoan izan behar du ofizial ala ez? Nik Administrazioan egiten dut lan, eta iruditzen zait hori hemendik hamarkada batzuetara izango dela posible. Gaur egun ezin da eskatu ere egin, ez baitauek ez indarririk, ez babesik. Gaur egungo egoerarekin ezin da hori bultzatu. Bultzatu beharrekoa, nire ustez, neurri zehatz eta garbiak dira, hizkuntzaren egoera beste autonomia erkidegoen maila berdinean jartzeko.

3. Europako Hizkuntzen Nazioarteko III. Sinposioa, Iruña, 1997. Sinposio horrek Nafarroako Gobernuaren, Iruñako Udalaren, Nafarroako Unibertsitatearen, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, Ateneoaren eta beste zenbait erakunde ofizialen diru-laguntza jaso zuen.

Kontuan hartu behar da Xabier Erizek aipatu duena: "gu" eta "besteak". Zatiketa hori apurtu egin beharko litzateke. Euskaltzaleen artean ere, ideia desberdinak izan ditzakegu, eta oso interesgarria da euskaltzaleetasunaren irudirako hori kanpora adieraztea. Teorian, euskararentzat onena izango zen euskaltzaleetasunaren barruan eskuineko jendea, ezkerrekoa, abertzaleak, espainiarrak eta denetarik egotea, baina hori zoritxarrez ez da ematen.

Gregorio Monreal: Iruditzen zait ofizialtasunaren auzia ez dagoela batere garbi ikuspegi juridikotik begiratuta. Zer da ofizialtasuna? Printzipio juridiko bat da, deklarazio moduko bat. Ofizialtasuna ez da ezer, beste eskubide zehatzagoetan gauzatzen ez bada. Hala ere, lortzekotan egon ginen, Nafarroako Parlamentuak hasieran hizkuntzaren ofizialtasuna aitortu zuelako. Ondoren, hizkuntzaren legeak ofizialtasun hori eskualdeka modulatu zuen, baina, hasiera batean, ofizialtasuna lurralde guztian egongo zela aurreikusi zen. Ezin uka deklarazioak berak garrantzi handia duela. Gerra hori galdu egin genuen, Trantsizioan egindako okerrengatik. Ez ginen konturatu Nafarroak Euskal Herriak banaturiko autonomia lortuko zuela, eta ez genuen Madrileko negoziazioetan parte hartu. PSOE eta UCD bakarrik utzi genituen negoziazio horretan, eta Nafarroako Parlamentuaren deklarazioa hartu eta hautsi egin zuten, gu ez ginelako han izan.

Bada bigarren alderdi bat, garrantzitsua iruditzen zaidana. Teoria konspiratiboetan sartu gabe, eta kontuan izanik etengabe ahuldu egiten gaituen faktore bat dagoela, ETaren presentzia alegia, Estatuaren politika aldatu egin da. Nafarroa zen nazionalismoa erasotzeko puntu ahula. Lehenengo biktimak euskara eta euskal kultura izan ziren. Baina ekimena PSN eta UGTrena izan zen. Eta, UPN etorri zenerako, martxan zegoen operazioa. Nafarroako auzia, Estatuko politika gai bihurtu da.

Roldán Jimeno: Nik uste 97.a oso urte garrantzitsua izan zela. Alde batetik, Nafarroako Unibertsitate Publikoan sozialistek hartu zuten boterea, baina, bestetik, Xabierrek aipatu duen III. Sinposio hori erabakigarria izan zen. Eta hori guztia Ateneoaren barnean ulertu behar da. Ateneoa gaur egun ere Nafarroako kultur elkarerik garrantzitsuena da bazkideen aldetik (1.200 inguru), eta bokal ezberdinak ditu. Euskararen bokal bezala Eugenio Arraiza genuen, eta Zientzia Moral eta Politikoetan Aurelio Arteta. Eugeniok, beste hainbat

elkarterekin, hain arrakastatsua izan zen Simposio hori antolatu zuen. Mediatikoki oso garrantzitsua izan zen. Euskarak une horretan loraldi izugarria zeukan. Eta Aureliok, unibertsitatean UGT eta PSNkoak zeudela irtenbide baten bila zebiltzanez, euskararen kontrako hitzaldiak antolatu zituen Ateneoaren euskarriarekin. Orduan hasi zen diskurtso hori: hizkuntzaren inguruan hitz egiteko hizlariak euskaldunak ziren, katedradunak, eta oso ospe handikoak (Jon Juaristi, Mikel Azurmendi...). Horren ondoren, entzulerian izugarritzko arrakasta zutela ikusirik, hasi ziren Aurelio Artetaren eta gainerakoen gutunak *Diario de Navarra*-n. Sinposio hori izan zen hasiera.

Iñaki Azkona: Nik uste dut diskurtso hori aurrez zegoen jarrera bat janzteko etorri dela, eta Euskal Herriko Unibertsitatean sortu diren indarkeria egoera konkretuetatik abiatzen dela jarrera hori.

Egia da Aurelio Arteta, Azurmendi eta hauek oso egoera gogorak bizi dituztela, baina ezin da ukatu atzean jarrera politikoagoak dituztela. Baina guk, historia hauetan gelditu baino gehiago, egin behar duguna da gure diskurtsoa hemendik aurrera nola planteatu behar dugun pentsatu, hori delako batzen gaituena. Lehenik eta behin, frogatu behar dugu bagarela, modu positiboan, eta egote hori gizarteari aberastasuna ekartzen dion ondare bat dela, aspaldiko garaietatik lotzen gaituena, eta oinarri bat ematen diguna herri bezala. Eta, era berean, berdin tratatuak izatea eskatzen dugu, ez erdal komunitateari ezer kenduz, baizik eta gureari zerbait erantsiz. Horretarako, eskubideak ditugu hiztun eta kolektibo bezala. Berdintasunak beste oso balio inportante bat dauka, etengabe aldarrikatu behar duguna: elebitasuna onartzen dugula, ez dugula gaztelania ezabatu nahi. Gaztelania onartzen dugu gure barneko hizkuntza delako, askoren kasuan -nirean-euskara baino sakonagokoa, historikoki hemengo hizkuntza izan delako, eta pertsona bezala aberastu egiten gaituelako, beste hizkuntzekin batera. Guk ez dugu jotzen gaztelaniaren kontra.

